

«Xake taula baten antzekoa da lan arloa»

Javier Arrieta Idiakez • Deustuko lan zuzenbideko irakaslea

Lan arloan mugitzen den pieza bakoitzak besteei eragiten die, Arrietaren ustez. «Ongizate estatua» izateko «ezinbestekotzat» jo du «kalitatezko enplegua» bermatzea, langile nagusienei zein gazteenei.

Arnaitz Lasarte Donostia

Euskal Herriko biztanleria zahar-
tzen ari dela diote datuek. Horrek
lan esparruan izan dezakeen era-
ginaz hausnartzeko elkartu dira
hainbat lagun Donostian, bi egu-
nez –atzo eta gaur–, EHUko Uda
Ikastaroen barruan. Tartean, Javi-
er Arrieta Idiakez (Ondarroa,
Bizkaia, 1976). Deustuko Uniber-
tsitateko lan zuzenbideko irakas-
leak hitzaldia eman zuen atzo.

**Euskal Herriko biztanleria za-
hartzten ari da, eta langileria ere
bai, ondorioz. Egungo sistema
prest al dago horrek eragin de-
zakeenari aurre egiteko?**

EAEko gizartea ingurukoan arte-
an zaharrena da eta jaiotza tasa
txikiena duena; erretiroa hartzen
ari direnak gero eta gehiago dira,
eta ez da ahaztu behar langabezia
tasa handia dela. Horrek, noski,
zuzenean eragiten du lan espa-
rruan, Gizarte Segurantzaren
pentsioen arloan. Neurri egokiak
hartzten ez badira, pensio sistema
bera jokoan egon daiteke. Ezin-
bestekoa da neurriak hartzea.

**Eta, egun, zein neurri ari dira har-
tzen arlo horretan?**

Neurriak hartu dira, esaterako,
adinean aurrera doazen langileak
lan merkatuan jarraitzeko. Kasu
batzuetan, borondatez egiten da,
eta beste batzuetan, nahitaez. Hor

kokatu behar da Espainiako Go-
bernua erretiroa hartzeko adina
67 urtera luzatu izana. Bestalde,
derrigorrezko erretiroa ere eza-
batu egin da; gaur egun, inoren-
tzat lan egiten duten langileak
ezin dira derrigortu erretiroa har-
tzera eurek ez badute nahi. Hori
uler daiteke diskriminaziorik
ezaren ondorio gisa, baina kon-
tuan hartu behar dugu pensio
sistemari eustea duela atzean.

**Hitzaldian esan duzu sistemari
eusteko baldintza garrantzitsua
dela «kalitatezko enplegua»
bermatzea. 55 urtetik gorako
langileei dagokionez, aurrera-
pausorik eman al da?**

Apurka-apurka ari dira urratsak
egiten. Azken urteetan, Europako
Batasunak eta Osasunaren Mun-
du Erakundeak hainbat gomen-
dio egin dituzte, eta Espainiak
2012an 55 urtetik gorakoentzako
estrategia bat jarri zuen indarrean.
Anbizio handiko estrategia,
gainera. Noski, orain estrategia
hori paperetik ekintzetara igaro
behar da, eta krisiak ez dio mese-
derik egin. Neurri garrantzitsu
batzuk hartu dituzte, hala ere.

Zein, adibidez?

Erretiro partziala eta errelebo
kontratuen aurkako jarrera na-
rremendu da, adibidez. Batetik,
kostu handiak eragiten dituelako
eta malguta ez delako; bestetik, el-

kartasunik gabea izan daitekeela-
ko belaualdien arteko loturan.
Derrigorrezko erretiroa ezabatu
izana ere aurrerapauso da, bo-
rondatezkoa bihurtu baita. Per-
tsona askok ez dute kotizatu pen-
sio duin bat izateko adina. Orain,
bateragarri izan daiteke lan egitea
eta pensioa kobratzea.

**Europako Batasunaren zuzenta-
rauek, Espainiaren estrategia...
aipatu dituzu. Hemengo erakun-
deek zer tarte daukate neurriak
hartzeko?**

Lan zuzenbideari dagokionez, Es-
painiak ditu eskumen gehienak,
baina horrek ez du esan nahi he-
mengo erakundeek lan politika
batzuk bultzatzea ez ditzaketarik.
Prestakuntzan eta enpleguan gai-
tasunak baditu EAEk, eta ez dira
gutxiesteak. Borondatezko Gi-
zarte Aurreikuspeneko Erakun-
dea (BGAE), adibidez, gure esku
dagoen lanabes bat da. Enplegu-
ko BGAE handi batzuk sortu dira,
negoiazio kolektiboan lortutako
akordio bidez. Horretan sa-
kondu behar dugu, pensio publi-
koak osatze aldera.

**Askotan bateraezintzat jotzen
dira langile gazteentzako eta
nagusientzako politikak.**

Zuhurtziaz jokatu gero, batera-
garriak dira. Xake taula baten an-
tzekoa da lan arloa. Mugitzen den
pieza bakoitzak eragiten du bes-



JUAN CARLOS RUIZ / ARGAZKOPRESS

teengan. Gazteen egoerak, adibi-
dez, sistema osoan eragiten du.
Gazteak gero eta beranduago
txertatzen dira lan merkatuan.
Gehienetan, modu prekarioan,
lan bekekin, eta lan kontraturik
gabeko praktikak eginez –asko-
tan erakundeek bultzatuta–. Ho-
rrek zein onura dakartzio siste-
mari? Gazte batek egonkortasun-
rik ez badu, zaillago du seme-
alabak izatea. Gaztetatik lanpostu
duina izatea garrantzitsua da;
osasuntsuago egongo gara, gus-
turago, errazago identifikatuko
gara sistemarekin, eta bide batez,
ekarpen handiagoak ere egingo
ditugu.

**Zein da bidea gazteak ahalik eta
azkarren sartzeko lan merka-
tuan?**

Ezinbestekoa da hezkuntza siste-
ma indartzea. Espainian, ordea,
behin eta berriz aldatzen ari dira.
Unibertsitateen kasua hor dago.
Duela 10 urte Bologna sistemari
sartu ginen, eta orain, badirudi al-
daketak datozela. Unibertsitate-
k zubi lana egin behar du. Ikus-
puntu teorikoa eta praktikoa ber-
tan landu behar dira; ez hango
ikasketak amaitu osteko maste-
rrean, edo lan kontraturik gabeko
praktiketan. Horrela ezin zaio
orekari eutsi. Neurriak hartu be-
har dira egoera aldatzeko.

Teknologia berrien unitatea abiaraziko dute Cegasan

BILBO • Inbertitzaile talde batek
zortzi milioi euro jarriko ditu, Ce-
gasako teknologia berrien unitate-
a berriro martxan jartzeko. In-
bertitzaileen artean daude Cega-
sako langile ohi batzuk. Lantegia
Bizkaian jarriko dutela iragarri
dute, baina non ez dute zehaztu.
2014an, hartzekodunen konkur-
tsoan sartu zen enpresa, eta gai-
nontzeko sailak beste konpainia
batzuen esku gelditu ziren.

Candyko langileek oniritzia eman diete bi proposamenei

BERGARA • Gipuzkoako Diputa-
zioak aurkeztutako bi proiektuak
begi onez ikusi dituzte Candyko
langileek. Urbanext eta Lanteko
enpresak dira proiektuak aur-
keztu dituztenak. Biek birzikla-
tzearen arloan egiten dute lan.
Diputazioak ohar batean adierazi
du «datozen egunetan» elkartu-
ko direla langileak enpresa horie-
tako ordezkariekin, «eman be-
harreko pausok zehazteko».



Bergarako Candy lantegia. R. B. / ARP

OHIKO BATZAR NAGUSIAREN DEIALDIA

MUTUA, Gizarte Segurantzaren Inbertitzaile Taldearen Zuzendaritza Batzarra, honako deialdiak eman ditu: **2015eko azaroaren 13a (guztira) 12.00etan, asteartean, orduak 12.00etan, Ingurumen Batzarra, OHIKO BATZAR NAGUSIAREN DEIALDIA.** Deialdiaren helburua da **2015eko azaroaren 13a** (guztira) 12.00etan, asteartean, orduak 12.00etan, Ingurumen Batzarra, OHIKO BATZAR NAGUSIAREN DEIALDIA.

Gai-zerrenda

1. Prebentzioa egina.
2. Zuzendaritza Batzarrearen baliabideen erabilera, inbertitzaile taldearen baliabideen erabilera eta haren baliabideen erabilera. Taldearen 2015ko azaroaren 13a (guztira) 12.00etan, asteartean, orduak 12.00etan, Ingurumen Batzarra, OHIKO BATZAR NAGUSIAREN DEIALDIA.
3. 2015eko azaroaren 13a (guztira) 12.00etan, asteartean, orduak 12.00etan, Ingurumen Batzarra, OHIKO BATZAR NAGUSIAREN DEIALDIA.
4. Prebentzioaren baliabideen erabilera eta inbertitzaile taldearen baliabideen erabilera.
5. Zuzendaritza Batzarrearen baliabideen erabilera eta inbertitzaile taldearen baliabideen erabilera.
6. Balerak eta baliabideen erabilera eta inbertitzaile taldearen baliabideen erabilera.
7. Prebentzioa egina.
8. Balerak eta baliabideen erabilera eta inbertitzaile taldearen baliabideen erabilera.

Deialdiaren helburua da **2015eko azaroaren 13a** (guztira) 12.00etan, asteartean, orduak 12.00etan, Ingurumen Batzarra, OHIKO BATZAR NAGUSIAREN DEIALDIA. Deialdiaren helburua da **2015eko azaroaren 13a** (guztira) 12.00etan, asteartean, orduak 12.00etan, Ingurumen Batzarra, OHIKO BATZAR NAGUSIAREN DEIALDIA.

Deialdiaren helburua da **2015eko azaroaren 13a** (guztira) 12.00etan, asteartean, orduak 12.00etan, Ingurumen Batzarra, OHIKO BATZAR NAGUSIAREN DEIALDIA. Deialdiaren helburua da **2015eko azaroaren 13a** (guztira) 12.00etan, asteartean, orduak 12.00etan, Ingurumen Batzarra, OHIKO BATZAR NAGUSIAREN DEIALDIA.

Bilbo, 2015eko azaroaren 13a - Zuzendaritza Batzarra - **PREBENTZIOA**